

Eustakio Arrojeria

• 'ELHUYAR' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA •

■■■ Elhuyar Kultur Elkartek aurten 25 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko ekitaldi bat egingo du gaur arratsaldeko 19:00etan Donostiako Kursaal jauregian. ■■■ Historian izandako gorabeheretz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez aritu da hizketan EGUNKARIA Eustakio Arrojeria *Elhuyar* aldizkariako zuzendariarekin.

■■■ Zientzia eta teknologiaren arloan euskara normaltasunez erabiltzen lagundu du elkarteak.

«Zientzia arloan euskara normaltasunez erabiltzen lagundu dugu»

■ **Nolako balantzea egiten duzue Elhuyar sortu zenetik igarotako 25 urte hauetaz?**


Uste dut zientzia eta teknologiaren munduan aurre-
rapen handiak izan direla. Azken bolada honetan espe-
zializatuak ez diren komuni-
kabideetan zientzia arloko
gaiak hartzen ari diren oihar-
tzuna horren lekuko da. Guri
dagokigunez, lan handia egin
behar izan dugu zientziaren
dibulgazioa egiten, eta egin-
behar hori euskal hedabidee-
tan beharrezkoa dela ikusa-
razten. Iruditzen zait horren
emaitza dela azken boladan
aldizkaria indartua egotea,
batez ere kolaboratzaileei
dagokienez, eta baita ingu-
ruan ditugun baliabideen
aldetik ere: alderdi ekonomi-
koan, informazio iturrietan...
Azken boladan izan dira urte
batzuk mortu samarrak, non
ia bazirudien zientziak inola-
ko garrantzirik ez zuela, edo
oso adituentzat soilik zuela.

■ **Zientzia eta teknologia-
ren mundua euskaldun-
tzen ere berebiziko lana
egin du Elhuyarrek, ezta?**

Bai, esan behar da uniber-
tsitateetan lan handia egin
dutela euskara eta zientzia-
ren alorrean, baina hori
gizarteratzeko eta zabaltzeko
guk egin dugun lana pisu
handikoa izan da. Uste dut
horretan egin dugun ahalegi-
naren ondorioa ere badela
gaur egun normalizazio
horren barruan euskara ez
dagoela oso atzera, gainera-
ko hizkuntzen mailan dagoe-
la.

■ **Zein izan dira une zail eta
gozoenak?**

Unerik zailenak hasieran
izan ziren, asko kosta bai-
tzen sinestea proiektu horre-



ARTXIBOKOA

tan, eta jendeak horri lagun-
tza ematea. Tartean urte

asko izan dira
gazi-gozoekin,
baina une hone-
tan une gozoak
bizi ditugu, eta
gainerako komu-
nikabideekiko
lankidetzak asko
ugaritu dira: tele-
bistan programak
egin ditugu, irra-
tiekin lankidetz-
a areagotu dugu,
EGUNKARIA- rekin
ere lankidetz-
a harreman bat
badugu. Horrek
guztiak dezente
hedatzen ari gare-
la adierazten du.

■ **Dibulgazioaz
gain bestelako**

**lanak ere egingo zenituz-
ten, ezta?**

Egungo egoera

«Azken boladan
izan dira urte
batzuk mortu
samarrak, non ia
baitzirudien
zientziak inolako
garrantzirik ez
zuela, edo oso
adituentzat soilik
zuela. Orain une
gozoak bizi
ditugu»

talpen hori. Horrez gain,
Elhuyarrek bestelako lan
batzuk egin ditu: une hone-
tan enpresetan sartuta gaude
buru-belarri horiek euskal-
duntzeko, gure betiko hebu-
ruaren barruan sartzen baita
zientzia eta teknika arloan
euskara normaltzea, eta
enpresa mundua horren
barrua dago.

■ **Zein dira Elhuyarren
egungo egoera eta etorki-
zuneko erronkak?**

Esan dezakegu pattalaldi
bat igaro ondoren gora egiten
hasi garela orain. Horrela,
guk lan egin ahal izateko
gure batzuk aurkitu ditugu:
komunikazio arloan jarrai-
tzea, bai gure proiektua
hobetzen, eta baita gainerako
komunikabideekin lankide-
tzak ugarituz; bestalde,
enpresa mundua euskaldun-
tzeko esparru zabala dago;
eta beste esparru bat da ira-
kaskuntza eta hezkuntza.
Arlo horretan formazio alde-
tik-eta materiala prestatzen
ari gara lanean.

■ **Zer ekarri dio Elhuyarrek
25 urte hauetan euskara-
ri eta euskal kulturari?**

Hizkuntza guztiek behar
duten normaltasunean bul-
tzada eman dio Elhuyarrek
euskarari. Zientzia eta tekno-
logia asko kanpoan egiten da,
baina baita hemen ere, eta
gero eta gehiago kontsumi-
tzen dugu. Uste dut alor
horretan euskara normalta-
sunez erabiltzen lagundu
dugula. Gure aportazio naga-
sia hor jarriko nuke, nahiz
eta euskalgintzaren beste
arlo batzuetan ere lanean ari-
tu garen, eta hor ere zer edo
zer aportatu dugun.

Iñaki Petxarroman
DONOSTIA

Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan aldarrikatuko du AEKegunak

■ *'Euskaraz jantzi hadi
eta haugi!' lelopean
egingo da Saran
hilaren 24an*

Gorane Agirre / Bilbo

EUSKARAREN ofizialtasu-
na Euskal Herri osoan eta
plangintza nazionalaren
premia aldarrikatuko du
aurtengo AEKegunak
hilaren 24an Saran.
Horrela jakinarazi zuten
Alfabetatze Euskalduntze
Koordinakundeko ardura-
dunek (AEK) atzo.

Aldi berean, administra-
zio guztiek AEK irakas-
kuntza erakunde gisa eza-
gutzea aldarrikatuko dute
AEKegunaren XI. aldiaren
karietara. Halaber, euskal
departamendua Ipar Eus-
kal Herrian euskarak
dituen behar gorrieti erant-
zuteko gutxieneko egitura
dela nabarmenduko dute.

Euskaltzaleen festa izan
nahi duen AEKeguna *Eus-
karaz jantzi hadi eta hau-
gi!* lelopean egingo dute
hilaren 24an Sara udale-
rrian, Lapurdin.

Euskara ikasteko gogoa sustatzea

Joxe Leon Otaño XI. AEKe-
gunaren arduradunak
azaldu zuenez, «*Euskaraz
jantzi hadi* leloaren bidez,
Euskal Herriko biztanleei
egun horren bidez euskara
ikas dezaten gogoa eta be-
harra sustatu nahi dugu.
Ostera, *eta haugi* erranez,
gurekin batera euskararen
egoera zail honi aurre egi-
tea dugu helburu».

Aurten Lapurdin ospa-
tuko denez gero, AEKegu-
naren «aldarrikapena
indar biziz plazaratuko»
dute. Leon Otañok adiera-
zi zuenez, «Ipar Euskal
Herrian karteletako lagunak
bezain larru gorrian ibiliko
da gure hizkuntza. Legez
kanpoko da oraindik eta
Frantziako Gobernuak
Eurokartaren izenpetzeari
uko egin dio. Halaber,
AEK-k udalerri anitzen
laguntza jasotzen badu
ere, ez du oraindik ezagu-
penik lortu bestelako
administrazioetatik». «Hiz-
kuntz politika bat mar-
txan emateko edota Anto-
lakuntza Eskemako hiz-
kuntz neurriak bidera-
tzeko eskas dugu oraindik
egitura politikoa», esan
zuen.